

Txokolate zaporea





Argitaraldia: 1.a 2007ko irailean
Ale-kopurua: 1.000 ale
© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Industria, Merkataritza eta Turismo Salla
Internet: www.euskadi.net
Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Egilea: Ortizadar, S.L.
Aurreinprimaketa: Argia Servicios Gráficos, S. L.
Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S. A.
ISBN: 978-84-457-2607-5
Lege-gordailua: VI-392/07



Azkenean iritsi da egun handia. Kontxi eta Tontxu gaur arratsaldean joango dira aitona-amonen etxera asteburua igarotzera; gurasorik gabe, gainera. Eta ez dago hoberik, lehengusu-lehengusinekin elkartuko dira.

“Presta dezagun ”, esan du Tontxuk.

“Aldatzeko arropaz gain, ez ahaztu pijama eta nezeserra”, gogoratu dio arreba Kontxik.

“Ea zer hartu dugun:  eta , bai. Jatordu bakoitzaren ondoren hortzak garbitzeko.  a eta kolonia, BAI.



a BAITA ERE. Amatxok dioen bezala, jan aurretik eskuak garbitu behar dira eskuetan egon daitekeen zikinkeria janariarekin edo gure ahoarekin ez nahasteko. Hori eginez gero, ez zara gaixotuko”.

Dena prest. Aitona eta amona baserrian bizi dira, urrun.

Automobilerara igotzearekin batera, Tontxu aitari galdetu dio: “Noiz iritsiko gara? ... Asko falta da?”.

“Lasai hartu, bidea luzea da eta”, erantzun dio aitak.

“Nahi baduzue ‘hitzak asmatzen’ jolastuko gara”, proposatu die amak.

“Bidean baratze asko dago. Amonak ortuan dituen



bezalako ortuariz eta barazkiz beteta daude”, jarraitu du amak.

“Neu hasiko naiz”, esan du Kontxik.

“Jaki honen izena T letraz hasten da eta E letra dauka bukaeran”.



a esan du amak. “Tomatea janari oso elikagarria da. Entsaladan gozo-gozoa da, eta pastarekin ere primerakoa”.

“Zuri, Tontxu, nola gustatzen zaizu?”, galdetu dio aitak.

“Niri patata frijituekin”, erantzun du (pentsatze hutsarekin gozatuz).

Ea, orain beste hitz bat: “Hasieran M letra dauka, eta amaieran I letra. Fruta-izena da”.



“a, ziur”, esan du Kontxik.

“Oso ondo”, esan du amatxok. “Lehenengoan asmatu duzue!”.

Dena dela, zuei ez zaizue fruta gustatzen, baina jakizue ondo elikatzeko fruta jatea oso garrantzitsua dela. Ortuariak, lekaleak eta beste jaki batzuk ere oso onak dira”.

Igarkizun-jolasa dela eta, konturatu orduko iritsi dira aitona-amonen



ra .

Han, lehengusu-lehengusina guztiak aurkitu dituzte zain.



Abentura handi bat izateko irrikitan daude. Etxeak txoko eta ezkutaleku asko ditu, eta haurrek esploratzaile izateko gogoia dute.

Amonak seme-alabak txikiak ziren garaiko oroigarri mordoa gorde ditu ganbaran. Pirata-mozorroa, begiko estalki eta guzti; maitagarri-mozorroa, makilatxo magiko eta guzti; egurrezko zalditxoa; irrati zahar bat... munduko bola bat ere bai.



Kontxik - mozerroa jantzi du eta beste abenturazale guztiei desio bat eskatzeko esan die.

“Gure eskaria asteburuko janari guztia txokolate bihurtzea da. Hori gertatzen bada, dena izango da gozo-gozoa”. Denak

daude ados. Ondoren, begiak itxi dituzte, eta Kontxik makilatxoari eragin dio. Eskatutakoa gertatu da!

Aitona deika ari da beheko solairutik, afaltzera jaisteko.

“Tira, afaria prest dago. Baina jaten hasi aurretik eskuak garbitu. Arinen dabilena, datorrela mahaja prestatzera. Platerak, mahai-tresnak eta edalontziak jarri behar dira eta. Besteok afalostean jaso egin beharko dituzue”.

Guztiak mahajan eseri ondoren, amonak eder bat ekarri du, barazki eta guzti.



-plater


Arraina ez zaie askorik gustatzen, hala ere jan egin behar. Ez dute beste aukerarik.


Baina, hara, jaten hasi direnean, itzelezko ustekabea! Arraina jan eta



-zaporea duela iruditu zaie. Urak ere



txokolate urtua dirudi. Eta postreko  ra ere txokolatezkoa ematen du.

Pozik, zoriontsu, eta egindako eskariaz tutik esan gabe joan dira  ra . Egun gogorra gaurkoa. Bihar abentura gehiago.

Hurrengo goizean  ederra aurkitu dute mahaietan: laranja-zukua, basokada eder bat esne eta zerealak.

Orain ere harrituta geratu dira. Mahai gainean dagoen guztiak txokolate-zaporea du. Eta bazkal orduan beste horrenbeste! Dilistek eta xerrak txokolate-zaporea. Hau marka!





Dagoeneko nekatzen hasi dira hainbeste txokolaterekin. Txokolateak sabela puzten die, eta jolasten ere nekatu egiten dira. Zoritxarrez, ez dakite nola eten sorginkeria. Asteburua bukatu arte itxaron beharko dute.



Azkenean eta etorri dira bila, eta etxera itzuliko dira. Eskatutako desioa gaur bukatuko da, eta gaurtik aurrera jaten duten guztiak benetako zaporea izango du.



k barazki-pure ederra eta sagar bat darabiltza buruan, eta  k txorizo-ogitarteko batekin eta gazta zati batekin egiten du amets. Lehengusu-lehengusinek zer izango ote dute buruan?





EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO